

TXARTELETAN MUTIL BAT

Muxikako Gorozika auzoko Ignacio Larruzeak kontatuta

Mutiko irtentxo bat txarteletara joan zen behin. Abadeak, bere aldia heldu zenean, zirikatzearren edo

- Txotxo –esan zion-, hamar mandamenduak zenbat dira?

- Bost, jauna.

- Bost gehiago.

- Hor dago –mutiko lotsa gutxikoak.

Barre, ume eta ez ume, inguruan zeuden guztiak.

Orduan abadeak berriro ziria eragitearren,

- Txotxo –itaundu zion--. Jaungoikoa leku guztietan dago?

- Bai , jauna.

- Orduan zuen laban ere bai.

- Gure laban, ez.

- Nola da hori? Ez diozu bada leku guztietan dagoela Jaungoikoa?

- Bai.

- Eta zuen laban, ez?

- Ez, gurean ez dago labarik eta.

Resurrección María de Azkue

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989